

MARTXOAK 8 (CARITAS GIPUZKOA)

Munduko edozein bazterretako emakumeek jasaten dituzten gizarte-desberdintasun eta pobrezia, martxoaren 8a ospatzen jarraitzeko premia ikusten du CARITAS GIPUZKOAk, haren aldarrikapenen indar guztiz.

Elizaren Gizarte-doktrinak, emakumeen duintasuna azpimarratzen du era nabarmen batean, urratu egiten da bizitza sozialeko eremu askotan emakumeek bizi dituzten egoera bidegabeen ondorioz. Ez da bakarrik emakume txiro gehiago dagoela, baizik eta beronen talka, handiagoa da.

Gainera, desberdintasun guztiak areagotu egiten dira, emakumeak landa eremukoak, indigenak edo gutxiengo etnikoetakoak direnean. Azken hamarkadetan, migratzerakoan, emakume migratzaileek sexu-esplotazioa, indarkeria edo trata egoera larriak pairatzen dituztela gehitu behar zaio.

Egoera bidegabe horietako batzuk, CARITAS GIPUZKOAren eta Gizaide Fundazioaren zenbait programa eta harrera-etxetan egindako -landu eta marraztutako- puzzlera dakartza.

Honako hau esaten digu Frantzisko aita santuak: "Emakumeei eragindako gehiegikeria fisiko eta psikologikoen aurrean, presazkoa da berriz ere harreman bidezkoak eta orekatuak izateko moduak aurkitzea, errespetuan eta elkarren onarpenean oinarritzen direnak..." (2019ko urtarrilaren 7an, Egoitza Santuan kidego diplomatikoaren aurrean egindako diskurtsoa).

Caritas, bidegabekeria-errealitateetan sartutako Eliza garen heinean, zera deritzogu:

Presazkoa da erdigunean pertsona, guztien onura, eta naturaren zaintza jartzen dituen ekonomia baten aldeko apustua egitea.

Politika publikoak behar ditugu, emakume eta gizonen artean, bizitzako eremu guztietan, benetako berdintasuna bermatzeko; heriotzak eragiten dituen eta senideei sufrimendua sortzen dien indarkeria amaitzeko; eta oinarritzko eskubideen jabe izatea bermatzeko.

Gizartearen erdigunean, sorkuntza eta ingurugiroa ipini behar ditugu. Ardura hau, emakume eta gizonen artean partekatu beharreko lana da.

Era berean, emakumeen duintasun eta giza eskubideen aldeko konpromiso etengabea aldarrikatzen dugu, San Joan Paulo II.ak, 1995an emakumeei zuzenduriko gutunean botatako honakoa adierazi baitzuen: "oinarrizko eskubide sozial, ekonomiko eta politikoen konkistaren bidez beren izaera femeninoaren duintasunaren defentsan aritu diren eta beren konpromiso hori urratze-ekintzatzat hartzen zen garaietan ekimen ausart hori hartu duten borondate oneko emakumeenganako miresmena".

CARITAS GIPUZKOAK egoerarik larrienean dauden emakumeekin dugun eguneroko konpromisotik, beren eguneroko bizitza -lan munduan, familia eremuan...-, zailtzen jarraitzen duten egiturak eta jarrerak aldatzearen aldeko apustua egiten dugu.

Eragile aktiboak gara gizarte bidezkoago eta gizatiarrago baten eraikuntzan, non emakumeek gaitasun guztiak garatzeko aukera izan behar duten karitate eraldatzaile eta gizarte-justiziaren esparrutik. Gure konpromisoak mundua hobetzen du. Emakumeekin.